

Gizartekintzako Memoria

2020



Servicios Sociales

- I. SARRERA
- II. EIBAR
- III. UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA
- IV. ONDORIOAK ETA ERRONKAK


SARRERA

1. **Sarrera**
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

Memoria honen helburua Eibarko Udaleko Gizartekintzak egindako lana ezagutaraztea da.

2020an, martxoaren 14an osasun-alarmako egoera deklaratu ondoren, egoera erabat ezezaguna izan zen, eta, horren ondorioz, hasieran, eta berehala, aurre egin behar izan zitzairen biztanleria ahulenaren oinarrizko premiei eta larrialdi-egoerei. Aldi berean, eta pixkanaka, gainerako gizarte-premiei arreta emateko eta osasun-errealitatera egokitutako zerbitzuak eskaini ahal izateko lan-moduak txertatzen joan ziren.

Azken eszenatoki honetan jarraitzen da...



2 EIBAR

27.848 biztanle ditu

- 14.132 emakume
- 13.434 gizon

- 65-100 urte: 7.258 (4157 emakume, 3101 gizon). % **26,32**

- 0tik 25 urtera: 6228 (3202 emakume, 3026 gizon). % **22,60**

1. Sarrera
- 2. Eibar**
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

2.777 bizilagun 77 herrialdeetakoak dira

Beste leku batzuetatik etorritako pertsonak biztanleria osoaren % 10 dira

Jatorriaren arabera, hauek dira adierazgarrienak: Maroko, Nikaragua, Kolonia,

Pakistan, Republica Dominicana, ...

Datuak: 2021eko urtarrilaren 1a

3

UDAL GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

Udaleko gizarte-zerbitzuak dira herritarren sarrera, gizarte-premiei erantzuteko.

AHOLKU BATZORDEAK:

Gizarte Zerbitzuak

Berdintasuna

Pertsona Nagusiak

ADMINISTRAZIO UNITATEA

4 administrari laguntzaile

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

4 Gizarte langile

Eskuhartze Komunitarioa

Berdintasun teknikaria
Etorkinen Teknikaria
Familia, haurtzarora eta -
menpekotasunak arloko 2
teknikari

Etkez Etxeko zerbitzuen Arduraduna
Gizartekintzako Zuzendaria

► JENDEARENTZAKO ARRETA:

Administrariak:

Astelehenetik ostiralera:
09:00-14:00.

► Udan (uztaila-iraila): 09:00-
13:00

► Astelehenetan (urria-
ekaina): 16:30-19:00

Gizarte-langileak- Teknikoak (Berdintasuna - Familia, haurtzarora eta menpekotasunak - Immigrazioa:

- Astelehena-asteazkena-
osteguna (aurretik ordua
hartuta)


3

UDAL GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

TEKNIKARIEN ARRETA

2020an, udaleko gizarte-zerbitzuek **4.522 arreta profesional** egin zituzten, gutxi gorabehera. Alarma-egoeraren deklarazio dela eta, egindako arreta guztiak ez daude erregistratuta.



COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN KRISIA DELA-ETA SORTUTAKO ALARMA EGOERAREN AURREKO JARDUKETAK

Martxoaren 14tik ekainaren 21era arteko alarma-egoerak eta birusaren etengabeko hedapen-olatuek konfinamendu-neurriak, itxierak eta murrizketak ekarri dituzte, eta horrek ondorio sozialak izan ditu eta ditu herritar guztiengan, baina, bereziki, ahulenengan; adinekoengan, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeengan, bizitegi-egoera larrian dauden pertsonengan, baliabide ekonomiko urriak dituzten familiengan eta, bereziki, baliabide teknologikorik ez duten adingabeengan.

Testuinguru horretan, egindako lana honako hau izan da:

BAKARRIK BIZI DIREN PERTSONEI LAGUNTZEA

- Bakarrik bizi diren 65 urte eta gehiagoko pertsona guztiei telefonoz deitzea, haien egoera ezagutzeko eta laguntza emateko. Guztira, 1785 pertsonari deitu zaie.

KASU SOZIALEN JARRAIPENA

- Bizitegi-egoera larrian zeuden 5 pertsona 2 etxebizitzatan konfinatu dira. Etxerik gabeko pertsonen eguneroko jarraipena
- Kasuen jarraipena egitea eta hainbat erakunderekin koordinatzea: Caritas, gizarte-hezitzaileak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeentzako baliabideen kudeaketa.

COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN KRISIA DELA-ETA SORTUTAKO ALARMA EGOERAREN AURREKO JARDUKETAK

- Familiako esku-hartzeak eta/edo nerabe aktiboekin: 26 familia
- Esku-hartze berrien hasiera adingabeekin, online: 2 familia
- Online esku-hartze handiagoa behar izan duten familiak: 5 familia
- Koordinazioak areagotzea, bai telefonoz, bai e-mailez, eta, bereziki, familian esku-hartzea abian duten eta egoera kritikoan dauden adingabeen kasuan.
- Eskolak online egiteko laguntza teknologikoa eman duten beste zerbitzu batzuetara bideratzea.

LAGUNTZA EKONOMIKOA

- Gurutze Gorrira bideratutako 163 kasu. Konfinamenduak eragindako hainbat egoera jaso ziren, Gizarte Zerbitzuek baloratu zituen eta Gurutze Gorrira bideratu: 54 etxetarako erosketak egin ziren, ezin baitziren irten. 109 pertsonari/familiari laguntza ekonomikoa eman zitzaien 144 txartel emanez. Gurutze Gorriak 320 elikagai banaketa egin zituen. Horietatik 16 erosketa egiteko (6 pertsona) dirua aurreratu behar izan zitzaien eskudirua amaitu zenean.

COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN KRISIA DELA-ETA SORTUTAKO ALARMA EGOERAREN AURREKO JARDUKETAK

MENDEKOTASUNeko PRESTAZIO EKONOMIKOEN ONURADUNEN JARRAIPENA.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, mendekotasuna duten pertsonen egoera ezagutzeko eta konfinamenduak sortutako beharrian berriak identifikatzeko, zerbitzu hori emateko telefono-deiak egiteko eskatu zien udalei, foru-agindu bidez.

Deiak PECE (familia-inguruneko zainketengatiko prestazioa) eta PEAP (laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa) jasotzen duten pertsoneri/familiei zuzendu zitzaizkien.

Aldundiak emandako datuen arabera, 580 dei egin ziren - 577 pertsona.

LAGUNTZA EKONOMIKOAK COVID-19aren TESTUINGURUAN

Udalak, Covid-19 krisiaren ondorioz egoera ahulean dauden langabeei eta kolektiboei dirulaguntzak emateko ezohiko deialdiaren bidez, 200 €-ko 176 laguntza eman zituen, 35.200 € guztira.

3

UDAL GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

GIZARTERATZEA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Aldizkakoak ez diren prestazioak, gizarte-marjinazioko egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko gastu espezifikoek aurre egiteko nahikoa baliabide ez duten bizikidetza-unitateetako pertsonentzat.

Kontzeptua	Emakumea	Gizona	Guztira
ALOKAIRUA	54	38	92
AZPIERRENTAMENDUA	10	15	25
OSTATUA	1	1	2
JABEKIDETZA	4	2	6
MANTENIMENDUA	134	77	211
ENERGIA	135	77	212
ALTZARIAK - TRESNA ELEKTRIKOAK	1	0	1
KONPONKETA ETA INSTALAZIOAK	0	1	1
PREMIA PERTSONALAK	8	2	10
ETXEBIZITZA MAILEGUA	24	14	38
AURRETIAZKO ZORPETZEA	1	1	2

ONARTUAK: 600

KUDEATUAK: 629 (23 ez onartuak-6 atzera egindakoak)

LANGABEENTZAKO ETA PENTSIODUNENTZAKO DIRULAGUNTZA

200 euroko laguntza puntuala DBEren titular diren langabeentzat eta pentsiodunentzat.

ESKAERA GUZTIAK: 274

ONARTUAK: 241

ADINGABEENTZAKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZA

Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak: eskola kirola, Afariketari edo Jazinto Olabe ludoteka eta gurasoen elkartearen kuota.

79 eskaera aurkeztu dira (131 adingabe onuradun - 164 jarduera eskatu dira) eta 31 ez onartuak.

ELIKAGAIEN BANKUA

Baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen elikagaiak hileroko banatzea Gurutze Gorriaren bitartez.

- **FAMILIA ONURADUNEN BATEZ BESTEKOA: 166**
- **HILEKO BATEZ BESTEKOA: 422**
- **HAURTZOENTZAKO LOTEAK: 28**

IRAGAITZAZKO BIDARIENDAKO LAGUNTZAK

Garraiorako laguntza: 158 bidaia

Janari bonoa: 126

Udaltzaingoak kudeatua

UDAL GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

Gizarteratzea

Gizarte bazterkeria baloratu eta diagnostikatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzua, bazterkeria egoerak identifikatzen eta, hala badagokio, mailakatzen laguntzen duena. Era berean, eskatzaileei zerbitzu edo prestazio ekonomikorako edo zerbitzu eta/edo prestazio ekonomikoen konbinaziorako orientazioa ematen die, beren beharrei hobeto erantzuteko, baldin eta horiek eskuratzeko baldintzak betetzen badituzte.

Emakumea: 2

Gizona: 4

6

Udalak Eibarko eta Ermuko Gurutze Gorriari "haurrentzako laguntza" programarako ematen dion dirulaguntza izenduna, haurrentzako sortak erosteko, eskola-kanpaina eta Gabonetako kanpaina.

307 ume

“EAEn bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterlana”, SIISek Eusko Jaurlaritzarentzat egina.

Udalak ikerketan parte hartu du, eta osasun-alarmako fasean egonda, bizitegi-egoera larrian zeuden 5 gizonen eta 2 emakumeren eta 3 adingaberen datuak jaso ziren.

3

UDAL GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA GIZARTERATZEA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ARRISKUAN EDO GIZARTEAN BAZTERTURIK DAUDEN PERTSONEI GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN LAGUNTZEKO PROGRAMA

Udal zerbitzu honen helburua da pertsonen autonomia pertsonal eta sozial handiagoa lortzea, beren trebetasunak landuz eta gizarte eta hezkuntza laguntzaren bidez baliabide pertsonalak sustatuz.

Emakumeak: 7

Gizonak: 21

27

AKONPAINAMENDU ESPEZIALIZATUA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu bat da, eta, laguntza espezializatuaren bidez, erabiltzaileari aukera ematen dio bere egoera aldatzeko, autonomia pertsonalaren garapenari eta gizarteratzeari buruzko helburuak zehazteko eta prozesuan zehar erreferentziako pertsona bat izateko.

Emakumeak: 2

Gizonak: 4

6

3

UDAL GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

GIZARTERAZTEA/urgencia social

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ARRAGUETA

- 2019ko azaroan, hirigintzako hainbat gorabehera izan ziren, garrantzitsuenak azaroaren 12an eta 13an, eta, horren ondorioz, 15. eraikina hustu eta eraitsi egin zen, eta 17. eraikina ere hustu egin zen. Gorabehera haiek 16. eta 19. zenbakiei ere eragin zien aldi desberdinetan.
- Pertsona asko kaltetu ziren guztira. Errealitateak erakutsi zuen pertsonen artean egoera desberdinak zeudela. Zuzenean edo zeharka, 50 pertsona kaltetu ziren guztira:
 - 35 erroldatuak eta egoiliarak
 - 11 pertsona erroldatuta, baina ez egoiliarak
 - 4 erroldatu gabeak eta egoiliarak

Eibarko Udalak, Alokabiderekin (Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzak alokatzeko sozietate publikoa) egindako akordioaren bidez, 14 etxebizitzatan birkokatu ahal izan zituen bizitegi-alternatibarik ez zuten familiak/pertsonak.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

PERTSONA NAGUSIAK

Gizarte Zerbitzuak Eibarko adineko jubilatuen 4 elkarteekin (Ipurua, Urki, Untzaga eta Beheko Tokia) elkarlanean ari da, autoantolaketa sustatzeko eta bere jarduera babesteko. Proiektu zehatzak egiteko dirulaguntzak ematen dira.

Alarma-egoera zela eta, eta osasun-agintariek adierazitako neurriak hartuta, jardueraren zati bat berriro martxan jarri zuten irailetik aurrera.

IPURUA

URKI

BEHEKO
TOKIA

UNTZAGA

Coordinadora
BIZTU

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

PERTSONA NAGUSIAK

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia- eta prebentzio-zerbitzu bat da, erabiltzaileari etxean egoten laguntzeko. Etxeko laguntza eta/edo laguntza pertsonala eskaintzen die, etxean bertan moldatzeko eta komunitatean integratzeko, isolamendu-egoerak saihestuz.

Mendekotasuna duten pertsonak		Bakarrik bizi dira	Ezkonduek Bikotekidea	Beste senide batzuk	GUZTIRA
+ 80 urte	Emakumeak	27	13	5	45
	Gizonezkoak	1	4	2	7
65-80 urte	Emakumeak	9	5	1	15
	Gizonezkoak	7	-	-	7
- 65 urte	Emakumeak	2	4	6	12
	Gizonezkoak	6	-	1	7
GUZTIRA		52	26	15	93

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

PERTSONA NAGUSIAK

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Erabiltzaileen % 63 bakarrik bizi dira, eta % 71,5ek mendekotasun-mailaren bat dute.

- Guztira 130 pertsona artatu dira.
- Artatutako ordu kopurua: 30.920,75 ordu

Artatutako Pertsona Autonomoak		Bakarrik bizi dira	Ezkonduek Bikotekideak	Beste senide batzuk	GUZTIRA
+ 80 urte	Emakumeak	13	2	2	17
	Gizonezkoak	7	1	-	8
65-80 urte	Emakumeak	4	1	1	6
	Gizonezkoak	4	.	-	4
- 65 urte	Emakumeak	1	.	-	1
	Gizonezkoak	1	.	-	1
TOTAL		30	4	3	37


3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

MENDEKOTASUN-BALORAZIOEN BILAKAERA



3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak


MENDEKOTASUNAREN PRESTAZIOAK

FIZPE (PECE): prestazio ekonomikoa familia ingurunean eta zaintzaile ez profesionalei laguntzea: mendekotasuna duen pertsonari bere inguruko zaintzaile ez-profesionalek laguntzeko.

LPPE (PEAP). Laguntzaile pertsonal bat kontratatzen da, mendekotasun handia duten pertsonari hezkuntza eta/edo lana eskuratzen laguntzeko eta eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan autonomia handiagoa izateko.

ZLPE (PECV): mendekotasuna duen pertsonarentzako arreta eta zainketa zerbitzua eskuratzeko. Ezarritako baldintzak bete eta zerbitzu publiko edo itundurik ezin izan denean eman onartuko da.

Datuen bilakaera



3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

EGONALDI IRAUNKORRAK

Egoitzetan, mendekotasuna duten adineko pertsoneri ostatua, mantentze-lanak eta arreta pertsonalizatua eskaintzen zaizkie.

Besteak beste, zerbitzu hauek eskaintzen dituzte:

Ostatua.

Arreta zainketa pertsonaletan.

Laguntza medikoa eta erizaintzakoa.

Laguntza psikosoziala.

Emakumeak: 27

Gizonezkoak: 18

45

ALDI BATERAKO EGONALDIAK

Aldi baterako egoitza baliabidea, mendekotasuna duen adineko pertsona batek behar dituen zainketak bermatu nahi dituen, familiaren eta haren zaintzaileen atsedeen beharrei erantzunez.

Emakumeak: 16

Gizonezkoak: 7

23

EGUNEKO ZENTROA

Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroaren zerbitzuak laguntza integrala eskaintzen die eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga fisiko eta/edo psikiko handiak izateagatik beren beharrak behar bezala ase ezin dituztenei.

Emakumeak: 17

Gizonezkoak: 13

30

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

LAGUNTZA TEKNIKOAK

Ezgaitasunak dituzten edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxean egoten laguntzeko produktuak dira, bai eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko eta gizarteratzeko autonomia pertsonala bermatzeko ere.

Emakumeak: 79
Gizonezkoak: 35

114

UDALAREN LAGUNTZA TEKNIKOAK

Eibarko Udalak laguntza-produktuak emateko zerbitzua sortu du, urritasuna, mendekotasuna edo eritasun larria duten pertsonen eguneroko bizitzako jardueretan autonomia pertsonala eta irisgarritasuna errazteko. Zerbitzua arautzen duen Erregelamendua dago, GAO n argitaratua 2019ko uztailaren 12an.

Emakumeak: 8
Gizonezkoak: 1

9

KGP

Gizarte Segurantzaren pentsioa, bizitzaren oinarriko beharrei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten adinekoentzat edo ezgaitasuna dutenentzat.

Emakumeak: 8- Gizonezkoak: 4 (12)

ONGIZATEKO FUNTSA

Hileko prestazio ekonomikoa da, 65 urteko edo lanean hasia galarazten dien ezgaitasunen bat duten baliabide gutxiko pertsonentzat.

Bi modalitate daude:

Zahartzaroko gizarte ongizatearen funtsa.
Baliaezintasuneko GOFIS

Emakumeak: 0- Gizonezkoak: 1 (1)

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

EZGAITASUNAREN BALORAZIOA

Ezgaitasun maila eta baremoa baloratzea, garraio kolektiboak erabiltzeko mugitzeko zailtasunak daudela zehazteko. Ezgaitasun maila portzentaje moduan neurtzen da.

Ezgaitasun aitortua izateko, ezgaitasuna % 33koa edo handiagoa izan behar da.

Emakumeak: 69
Gizonezkoak: 103

172

TELELAGUNTZA

Laguntza zerbitzu bat da, erabiltzaileei telefono linearen bidez eta ekipamendu berezi batekin urteko eguneko 24 orduetan zerbitzua eduki ahal izateko aukera ematen diena.

Emakumeak: 57
Gizonezkoak: 49

106

APARKATZEKO TXARTELAK

Txartel honen bidez, ezintasunak eta mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonei dauden tokitik edo jan nahi duten lekutik gertu dagoen aparkatzeko plaza bat izatea errazten die.

Emakumeak: 47
Gizonezkoak: 41

88

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNAREN PLANA

Mendekotasuna duten adineko pertsoneri eta adineko pertsona autonomo ahulei laguntzeko jarduketa multzoa da.

Eibarrek lau jarduera-ildo biltzen dituen Esku-hartze

Plana du:

- Adinekoak etxean geratzeko laguntza
- Adinekoen osasuna eta ongizatea prebenitzea eta sustatzea
- Zaintzaileentzako laguntza eta arreta
- Komunitatearekiko sentsibilizazioa

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2020an, hainbat prestakuntza ikastaro antolatu ditu familiako zainketak jasotzen dituzten zaintzaileentzako prestakuntza programaren barruan, eta 62 zaintzailek hartu dute parte. Matia Fundazioak eman ditu ikastaroak eta Portalean egin dira.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

BERDINTASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

BERDINTASUN ZERBITZUA

Indarkeria sexistaren biktimei arreta eta laguntza ematen zaie. Gainera, egoera bakoitzari dagozkion prestazioak eta baliabideak eskaini eta kudeatzen dira, baloratu ondoren.

ARRETA, GUZTIRA

2018: 256

2019: 328

2020: 180

Indarkeria matxistaren biktimentzako laguntza psikologikoa: 13

Sexu indarkeriaren biktimentzako laguntza psikologikoa: 1

Laguntza ekonomikoa genero indarkeriaren biktima izateagatik: 6

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei harrera egiteko etxebizitza: 3 emakume Aldundiaren baliabideetan. 2 emakume eta ume bat udal errekurtsioan.

ANDRETXEA

Berdintasunerako Udal Zerbitzuaren baliabide bat da, eta herritarrentzako gune ireki bat, Eibarren berdintasunaren eta tratu onen alde lan egiteko dugun helburuarekin bat datorrena. Gainera, topaketarako, kultura-aniztasunerako, emakumeen jabeakuntzarako, elkartegintzarako eta herritarren partaidetzarako lekua da.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA


- 1. Sarrera
- 2. Eibar
- 3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
- 4. Ondorioak eta erronkak

BERDINTASUNA


Laguntza psikologikoa indarkeria matxistaren biktimentzat

Sexu-indarkeriagatiko laguntza psikologikoa

Indarkeria matxistaren biktimentzako laguntza
psikologikorako zerbitzuaren bilakaera
Gipuzkoako Foru Aldundia



Sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntza
psikologikorako zerbitzuaren bilakaera
Gipuzkoako Foru Aldundia



3


UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

- 1. Sarrera
- 2. Eibar
- 3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
- 4. Ondorioak eta erronkak

BERDINTASUNA


Indarkeria matxistaren biktimenezko
elkarbizitzako harrera-zerbitzuaren bilakaera

Eibartik kanpo



Indarkeria matxistaren biktimenezko
elkarbizitza-harreraren zerbitzuaren bilakaera

Eibarren



BERDINTASUNA- ANDRETXEA**• HELBURUAK:**

- Emakumeen ahalduzeari eta autonomiari garrantzia ematea, benetako berdintasuna lortzeko, hiri-mailan.
- Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa bultzatzea eta genero-ikuspegia antolatzea.
- Lana, elkartzea, kultura-aniztasuna eta tratu ona sustatzea.

Hausnarketa eta eztabaida-prozesua pertsonekin, edozein modutan, sentsibilizazio- eta indarkeria-lana egitea, gizartean aldaketaren alde egiteko.

- Berdintasun Zerbitzuak eta horrekin zerikusia duten beste erakunde batzuek egiten dituzten jardueri, kanpainei, programei, erakusketei, hitzaldiei eta ikastaroei buruzko informazioa, baita Emakumearen Mahaiari buruzkoa ere.
- Hainbat gaitako (indarkeria, sexu- eta genero-aniztasuna, ahalduztea, kultura) baliabideei eta eskubideei buruzko orientazioa eta aholkularitza.

355 (346 EMAKUME- 9 GIZON)

Liburutegi zerbitzua: 106 mailegu

Jabetze Eskolak tresnak eskaintzen ditu emakumeak beren bizitzaren jabeago izan daitezen, modu pertsonalean eta kolektiboan indartzeko, elkarrekin ikasteko eta haien partaidetza sozial eta politikoa motibatuzeko, bai eta errealitatea genero-ikuspegitik aztertzeke ere.

Covid-19aren ondorioz, programatutako ikastaroak bertan behera geratu ziren eta online 2 ikastaro eskaini ziren:

"Psikologia feministari buruzko online ikastaroa": bi talde egin ziren, eta 16 emakumek parte hartu zuten.

"Covid-19ko krisi eta doluari buruzko online ikastaroa": 5 emakumek parte hartu zuten.

21 matrikula online ikastaroetan.

Udazkeneko ikastaroak. Guztira: 101 matrikulazio.

Ez da zenbatzen Jabetza Eskolako Jabekuntza Espazioetan parte hartzen duten emakumeen kopurua (Enpalabras, Relaciones afectivos para fomentar los buenas tratos y espacio de Encuentro de mujeres múltiples). Izan ere, ez da beharrezkoa gune horietan izena ematea.

Eibarko sexu-hezkuntzako programa 2019-2020:

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak: 109 neska eta 113 mutil = 222 gazte

Lanbide Heziketako ikasleak: 16 neska eta 33 mutil: 49 gazte

V. Berdintasun Plana (2021-2024): 2020/12/28an, Osoko Bilkurak Eibarko Udalaren Barne Berdintasunerako I. Plana egiteko aurretiko diagnostikoa onartu zuen.

Genero-indarkeriaren eta eraso biktima diren emakumeei harrera hobea egiteko II. Tokiko Protokoloa eta erakundeen arteko koordinazioa: bilera 1.

SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK

Martxoaren 8ko kanpaina: Emakumeen Nazioarteko Eguna: Bildutako Feminismoak partida. Feminismoa gorpuztu dantza eta flashmob-a "ni una más, ni una menos" eta "respect me". Martxoaren 8ko irakurketa-gida (Liburutegiarekin lankidetzan).

Emakumeen ekarpenak Eibarko industrian, liburuaren erakusketaren aurkezpena.

Oharra: azken jarduera bertan behera utzi zuen Covid-19k, baina "emakumeen ekarpenak Eibarko industrian" erakusketaren bisita gidatuaren bideoa egin eta zabaldu zen (Berdintasun-Andretxearen mikrositean, emailz eta sare sozialetan, besteak beste) eta ekainean erakusketa Portalean ikusi ahal izan zen.

Ekainak 28: LGTBI+ Pertsonen Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna

Emakumearen Mahaiko partaideek aukeratutako hainbat kartel egin ziren, sare sozialetan eta webgunean zabaldu ziren eta Andretxeako paneletan itsatsi ziren. Ekainaren 28aren jatorria azaltzen zuen bideo bat egin zen, ostadar-banderaren igoeraren irudiak agertzen ziren bitartean, eta zabaldu egin zen. Askatasunaren eta Sexu Aniztasunaren bandera igotzea Untzagan.

Azaroak 25: indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna

Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean. Bortxatzaile bat zure bidean, performance-a (3 lekutan). Azalpen-bideoa zabaltzea. Pertsona erritoen kontzentrazioak. Irakurketa-gida, azaroaren 25ekoa (liburutegiekin lankidetzan).

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

FAMILIA, HAURTZAROA ETA NERABEZAROA

INFORMAZIO ETA BALORAZIO ZERBITZUA

Adingabeekin zerikusia duten eskaerei buruzko informazioa, balorazioa eta orientazioa emateko zerbitzua dago, eta banakako, familiako eta/edo taldeko baliabide espezifikoak eskaintzen ditu.

2018: 333
2019: 626
2020: 229

JAKINARAZPENAK

Babesik ezeko egoerei buruz jasotako jakinarazpenen kopurua da:

2018 (90)
2019
(117= 55 neska eta 62 mutil)
2020 (93)

Jatorria

- Ikastetxeak: 30
- Familia: 21
- Gizartekintza: 4
- Udaltzaingoa-Ertzaintza: 12
- Foru Aldundia edota Fiskalia: 16
- Udala- Alkatetza: 2
- Osakidetza: 1
- Gizarte larrialdiak: 1
- Anonimoa: 3
- Beste batzuk: 3

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

FAMILIAREN ESKU-HARTZEA

Familiako esku-hartzea egiten da arrisku adierazleren batekin jakinarazitako adingabearen egoera sozio-familiarra baloratu ondoren eta betiere familiak proposatutako baliabideak onartu baldin baditu.

- Familia esku-hartzeetan artatutako familiak: 33
- Ingurune irekian artatutako adingabeak: 46 (25 mutil-21 neska)
- Ingurune irekian artatutako familiak: 42
- Bidelagun (komunikazio transkulturaletik familian esku hartzeko zerbitzua): 46 pertsona

Tipologia:

- Behar psikikoekiko, segurtasunarekiko, prestakuntzarekiko zabarkeria
- Gurasoen ezintasuna haurren jokabidea kontrolatzeko.

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

FAMILIA, HAURTZAROA ETA NERABEZAROA

INGURUNE IREKIKO PROGRAMA

Ingurune irekiko programaren helburu nagusia da gazteei tresnak ematea, ezagutzak eta gaitasunak eskura ditzaten eta baliabide, zerbitzu eta testuinguruetan (eskola, familia, komunitate-baliabideak, berdinak...) modu egonkorrean parte har dezaten.

1. 46 adingabe (25 mutil- 21 neska)
2. Ingurune irekian artatutako familiak : 42 y 46 adingabe (25 mutil eta 21 neska)
3. Familiako eta/edo banakako hezitzailea: 11 familia. 21 adingabe (9 mutil- 12 neska)
4. Familia-hezitzailea eta terapia: 2 familia. 4 adingabe (2 mutil-2 neska)

EIBARKO HAURREN, NERABEEN ETA FAMILIEN I. PLANA 2018-2021

Helburua da adingabeen eta haien familien sustapena eta babesa bermatuko duten ekintzak bultzatu eta garatzea, haien bizi-kalitatea hobetzeko eboluzio-prozesuan, eta, hala, gizartean eskubide osoko herritar gisa pixkanaka parte hartzeko eta integratzeko.

JARDUKETAK:

- 2021eko egutegiaren banaketa, garapen jasangarriko helburuekin, AVAIM elkartearen lankidetzarekin.
- Haurren eskubideei buruzko kartelak zabaltzea AVAIMen laguntzarekin, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 31. urteurrena ospatzeko.

EIBARKO HAURREN, NERABEEN ETA FAMILIEN I. PLANA 2018-2021

JARDUKETAK:

- Nerabeen dinamiken taldea: 2 talde
- Adingabeentzako bideo-forum bat, liburutegiarekin lankidetzan: Ponyo (11 adingabe, 8 neska eta 3 mutil)
- Bullying: Yuul ipuinari buruzko erakusketa eta dinamizazioa liburutegiarekin elkarlanean. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailtako 7 ikastetxe.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

ADIKZIOAK

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ADKZIOEN V. PLANA

Mendekotasun-substantzien eta portaera-mendekotasunen kontsumoa ahalik eta gehien prebenitzea eta murriztea, eta, ondorioz, pertsonen eta haien familien osasunean eta, oro har, komunitatean eta biztanlerian dituen eraginak.

GURASOAK MARTXAN

Gurasoentzako prestakuntza:
391 (87 emakume- 18 gizon)

Oharra: 3 talde streaming izan dira eta parte-hartze ona izan da.

ADKZIOEN V. PLANA

PREBENTZIOA HEZKUNTZAN
Mendekotasunei aurrea hartzeko
tailerrak ikastetxeetan.

1.275 IKASLE

ADIKZIOEN V. PLANA

AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO
ESPAZIOETAKO PREBENTZIOA
Alkoholaren eta beste substantzia
batzuen abusuaren aurkako kanpainak:
Boltizar eta Outreach lonjak

487 (217 emakume- 270 gizon)

KULTURA-ANIZTASUNA / IMMIGRAZIOA

Herritarrei informazioa eta/edo orientazioa emateko zerbitzua:

2018:327 arreta

2019:390 arreta

2020:426 arreta. (198 bizilagun, 125 emakume).

Alarma-egoeragatik eta beste administrazio batzuekin egoera juridiko-administratiboa erregularizatzeko zailtasunak izateagatik. Immigrazio zerbitzuak zerbitzua zuzenean erabiltzeko bi mekanismo gaitu ditu, tramitazioa ahalbidetu dutenak.

IHARDUERAK

- Empalabramiento uda 2020: Emakumeentzako gaztelaniazko ikastaroak, ikuspegi feministatik.
- Bidelagun programa: Etorकिनen familientzako eta pertsonentzako arreta psikosoziala, dolu migratorioko eta familia-berroneratzeko egoerei aurre egiteko (46 pertsona).
- Bizilagunak: koordinatu eta hedatzea eta antolatzea, Gipuzkoako SOS Arrazakeriarekin eta beste toki-administrazio batzuekin lankidetzan. 6 pertsonak bideokonferentzia bidez parte hartu zuten.

- Sentsibilizazioa arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren barruan: ikerketa bat egitea ZAS! Elkartearen bidez. Zurrumurren Aurkako Sarea Eibarko biztanleriari buruz, haren aniztasunari buruz eta etorkinek jasaten dituzten aurreiritzi nagusiei buruz. Martxoaren 21ean zabaldu zen auzo-elkarteetara eta herritarren beste talde batzuetara, tokiko komunikabideetara eta kultura-aniztasunaren unitateari atxikitako sare sozialetara.
- Etorkizuneko lan-orientazioko zuzeneko zerbitzua berdintasun-zerbitzuarekin planifikatzea.
- Sustapen publikoko jarduerak, eta, zehazki, familia immigratuen egoerei eragiten dietenak, tokiko komunikabideekin harremanetan jarrita, edukiak udalaren webgunean sartuta eta zerbitzuari atxikitako sare sozialen profilak eguneratuta.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA / GIZARTE-EKIMENA**GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA**

Eibarko Udalak aurrekontuaren % 1 nazioarteko lankidetzara bideratzen du, eta 3 dirulaguntza lerro ematen ditu:

- **Elkartasun beka** : 20 eta 40 urte bitarteko gazte eibartarren artean nazioarteko elkartasunaren balioa sustatzeko lankidetzaren beka deialdia da. 1.500 €-koa da zenbatekoa. 2020an 2 beka eman ziren.
- **Sentsibilizazio-proiektuak (18.000 €)**: udalerrian proiektuak egiteko deialdi bat da, sentsibilizazioa sustatzeko eta nazioarteko lankidetzarako hezkuntza sustatzeko, prestakuntza hori hezkuntza formalean zein arautuan sustatuz edo sartuz. 2020an Egoaizia (xx) eta Proyde-Proega elkarten 3 proiektu lagundu ziren.
- **Nazioarteko lankidetzaren proiektuak (223.973,08 €)**: herrialde pobretuetan proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia da. Eibarko 5 elkarteren eskutik, proiektuak sustatu ziren herrialde hauetan: Egoaizia (Peru). Proyde-Proega (Argentina), Gurutze Gorria (Filipinak) eta Eibar-Sahara Elkartea (Sahara).

GIZARTE EKIMENA

- Eibarko udalerrian gizarte-ekintzaren (gizarte-zerbitzuen) esparruan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteei dirulaguntzak emateko deialdia egiten da urtero.
- Aurkeztutako eskabide kopurua: 19 eskaera. Onartuak: 17; 2 ukatu egin dira hainbat arrazoiengatik.
- Gastatutako aurrekontua: 27.590,50 euro
- Udalerriko erakundeekin koordinatzea, kasuak bideratzeko, jarduerak zabaltzeko eta lokalak laga edo errazteko, beren jarduerak abian jartzeko.

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

ONDORIOAK ETA ERRONKAK

2020. urtean, alarma-egoerak eragin handia izan du pertsona guztiengan eta, bereziki, adineko pertsonengan, baliabide ekonomiko urriak dituzten familiengan, haur behartsuenengan, bizitegi-egoera larrian dauden pertsonengan, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeengan, etab.

Egoera honetan, dena izan da erronka garrantzitsua, gizarte-zerbitzuek babes, arreta, zaintzak eta laguntza eskaintzeko duten berezko eginkizuna aurkitu baitugu, inoiz bizi izan ez dugun egoera batean.

Konfinamenduaren agertokia igaro da, baina gaur egun eragin duen eta eragiten ari den inpaktu sozioekonomikoa eta psikosoziala aztertzen ari gara.

Horregatik guztiagatik, jarraian zenbait gogoeta eta erronka aipatuko ditugu, eta landu egin beharko lirateke:

- Gizarte-larrialdiko egoeretan kontingentzia-plan bat artikulatzearen garrantzia.
- "Antena sozialak" ezartzea adinekoekin eta egoera ahulean daudenekin, prebentzio-lana egiteko.
- Baliabide ekonomiko gutxi dituzten familientzako baliabide sozialak eta ekonomikoak indartzea.

4

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. **Ondorioak eta erronkak**

ONDORIOAK ETA ERRONKAK

- Bizitegi-egoera larrian dauden pertsonentzako zerbitzuak indartzea.
- Berrikuntza gizarte-zerbitzuetan: herritarrekin komunikatzeko beste sistema batzuk baloratzea eta aztertzea, datu-baseak arintzea, elkarreragingarritasuna handitzea, etab.
- Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzea, bereziki inklusioaren eta mendekotasunaren arloan.